



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

**Kontseilu Europarraren ohiz kanpoko Bileraren
Orientazioei buruzko Oharra (EBTaren 50. artikulua)
Brusela, 2017ko apirilaren 29a**

Europar Batasuna (EB) osatzen duten 27 Estatuetakoko Estaturu eta Gobernuburuak (Estatu guztiak Erresuma Batua izan ezik) 2017ko apirilaren 29an bildu ziren, Erresuma Batuak –EBren Tratatuaren 50. artikulua– arabera egindako jakinarazpenaren ostean Kontseilu Europarraren Presidenteak proposatu dituen Orientazioak eztabaidatzeko.

Kontseilu Europarraren bilera horren berezitasuna izan da EB osatzen duten 28 Estatuetakoko 27 Estatuk soilik parte hartu dutela, Kontseilu Europarraren ohiz kanpoko formazio batean. Horren justifikazioaren jatorria EBren 27 Estatuak eta Kontseilu Europarraren Presidenteak eta Europako Batzordearen Presidenteak onartutako Adierazpena da, alegia, 2016ko abenduaren 15ean Bruselan egindako bilera informal batean onartutako Adierazpena.

Bilera informal horretan, Adierazpen bateratu bat onartu zen, helburu honekin: Erresuma Batua EBtik ateratzeari buruzko negoziazioen prozedurarako jarraibideak ezartzea. 5. puntuan hauxe zehazten da: “Erresuma Batuak Kontseilu Europarrean, Kontseiluan eta beraren prestatze-organoetan dituen ordezkariak ez dute parte hartuko eztabaidetan, ezta gai horrekin zerikusia duten erabakietan ere”.

SARRERA

Kontseilu Europarrak adierazten du europar integrazioak bakea eta oparotasuna ekarri dizkiola Europari, eta aurrekaririk gabeko lankidetzeta maila eta esparrua ahalbidetu dituela interes komuneko gaitan, azkar eraldatzen ari den mundu honetan.

Negoizazioetan, Batasunaren helburua izango da bere interesak nahiz bere herritarren, enpresen eta Estatuaren interesak zaintzea.

Bere iritziz, Erresuma Batuak Batasunetik ateratzeko hartu duen erabakiak ziurgabetasun nabaria ekarri du eta perturbazioa sor dezake, batez ere Erresuma Batuan, baina baita EBko gainerako Estatuetan ere.

Europar Batasunak, bere batasuna mantenduko du eta era itunduan jardungo du negoziazioetan. Jarrera eraikitzailea izango du eta akordio bat lortzen ahaleginduko da, bi alderdien interesagatik. Nolanahi ere, azpimarratzen du prestatuta egongo dela egoerari aurre egin ahal izateko negoziazioek huts egiten badute.

Kontseilu Europarrak onartutako Orientazioek negoziazioen esparrua definitzen dute, EBren Tratatuaren 50. artikulua arabera. Halaber, Batasunaren posizioak eta printzipio nagusiak azaltzen dituzte.

1. OINARRIZKO PRINTZPIOAK

Kontseilu Europarrak adierazten du jarraituko duela oinarriztat hartzen Estatuburuek eta Gobernuburuek eta Kontseilu Europarraren eta Europako Batzordearen Presidentetek 2016ko ekainaren 29an onartutako Adierazpenean ezarritako printzipioak.

Berresten du:

- Bere nahia dela Erresuma Batua bazkide hurbila izatea etorkizunean.
- Etorkizuneko akordio orok oinarriztat hartu beharko dituela eskubideen eta betebeharren arteko oreka eta bazkideen arteko baldintza-berdintasuna.
- Europako merkatu bateratuaren osotasuna zaintzeak kanpo uzten duela sektorekako parte-hartzean oinarritutako aukera.
- Batasuneko kide ez den Estatu batek, ez dituela Estatu kide baten betebeharrak berberak betetzen, eta, hortaz, ezin dituela Estatu kide baten eskubide berberak izan eta onura berberez gozatu.

Kontseilu Europarrak adierazten du 50. artikulua araberako negoziazioak gardentasunez eta multzo bakar batean gauzatuko direla. Printzipio hau aplikatuko da: ezer ere ez dago adostuta guztia adostuta egon arte; beraz, ez da posible izango banan-banako gaietarako konponbide bereziak negoziatzea.

Batasunak posizio bateratu batez helduko die negoziazioei, eta orientazio hauetan eta negoziazioaren gidalerroetan ezarritako kanalen bidez soilik konprometituko da Erresuma Batuarekin. Ez dira negoziaketa bereziak egongo Estatu kideen eta Erresuma Batuaren artean.

2. FASEZ FASEKAKO NEGOZIAZIOA

Kontseilu Europarrak gogorarazten du irteeraren egunetik aurrera Tratatuak ez direla gehiago aplikatuko ez Erresuma Batuan eta ezta egun Batasunera lotuta dauden bere herrietan eta itsasoz haraindi-lurraldeetan, ezta kanpo harremanak Erresuma Batuak bere gain hartuta dituen lurraldeetan ere.

Negoizazioen helburu nagusia izango da Erresuma Batuaren irteera ordenatua segurtatzea, ziurgabetasuna murrizteko eta aldaketa handi honek eragindako gorabeherak minimizatzeko.

Horretarako, Kontseilu Europarrak kontsideratzen du negoziazioen lehenengo etapan hauxe izango dela helburua:

- Herritar, enpresa, alderdi interesdun eta nazioarteko bazkideei ahalik eta argitasun eta segurtasun juridikorik handiena ematea.
- Erresuma Batua Batasunetik bereiztea, eta baita Estatu kide gisa hartutako konpromisoetatik datozkion eskubideak eta betebeharrak ezabatzea ere.

Kontseilu Europarrak gertutik kontrolatuko du negoziaketen garapena, eta determinatuko du noiz lortu den aurrerapen nahikoa hurrengo fasea hasteko.

Kontseilu Europarrak gogorarazten du Batasunaren eta Erresuma Batuaren arteko etorkizuneko harremanen akordioa ezin izango dela formalizatu eta ospatu Erresuma Batua hirugarren herrialde bihurtzen den arte. Dena dela, EB Tratatuaren 50. artikulua ezartzen duenez irteera negoziatu egin behar dela etorkizunean Batasunarekin egongo diren harremanak kontuan hartuta, harreman horiei negoziazioen bigarren fasean heldu ahal izango zaie, betiere lehenengo fasean aurrerapen nahikoa egin bada.

Halaber, negoziazio-prozesuan formula iragankorrek ere lortu ahal izango dira, Batasunaren intereserako eta egokia denean, egindako aurrerapenen arabera, etorkizuneko alde biko harremanetara daramaten zubiak eraikitzeko. Formula hauek zehatzak izan beharko dira, denbora aldetik mugatuak, eta mekanismoak ezarriko dira haien aplikaziorako. Mugatutako epe batean zehar Erkidegoaren altxorra mantentzea kontsideratzen bada, Batasunean indarrean dauden tresnak aplikatu beharko dira.

2 urteko aldia 2019ko martxoaren 29an bukatuko da.

3. IRTEERA ORDENATURAKO NEURRIEN INGURUKO AKORDIOA

Kontseilu Europarrak hauxe adierazten du:

- EBko herritarrek eta euren senideek EBko edozein Estatutan bizitzeko, lan egiteko edo ikasteko duten eskubidea EBren funtsezko alderdi bat da. Horregatik, kontsideratzen du negoziazioen lehentasuneko gai bat izango dela elkarrekiko bermeak adostea EBko eta Erresuma Batuko herritarren eta euren senideen egoera eta eskubideak irteeraren datan bermatzeko. Berme hauek eraginkorrek izan behar dute, baita lotesleak, ez diskriminatzaileak eta osoak ere, etengabeko bost urteko egoitza legalaren ondoren bizileku iraunkorra lortzeko eskubidea barne.
- Erresuma Batuaren irteerak eragina izango du Erresuma Batuan eta Erresuma Batuarekin operatzen duten EBko enpresetan eta baita EBN eta EBrekin operatzen duten Erresuma Batuko enpresengan ere. Halaber, eragina izan lezake kontratu edo akordio komertzialak sinatu dituzten eragileengan, eta baita Erresuma Batua EBko kide izaten jarraituko duela pentsatuta EBk finantzatutako programetan parte hartzen duten eragileengan ere. Negoziatioek saiatu beharko dute Tratatuaren aplikazioa Erresuma Batuan eteten denean sortuko den lege-hutsunea saihesten.
- Akordio ekonomiko bakar batek bermatu behar du Europako Batasunak eta Erresuma Batuak, Erresuma Batua Batasunaren kide den bitarteko epe guztian jatorria duten betebeharrak errespetatzen dituztela. Akordio honek, Hainbat urteko Marko Finantzarioarekin, Inbertsioetarako Europar Bankuarekin, Garapenerako Europar Fondoarekin eta Europako Banku Zentralarekin erlazioak izan behar dituzten alderdiak barneratu beharko ditu.
- Batasunak beti sostengatu ditu Ostiral Santuko Akordioei esker lortutako bakea eta adiskidetzeta. Bake Prozesuaren lorpen, onura eta konpromisoak sostengatzen eta babesten jarraitzeak berebiziko garrantzia izaten jarraituko du. Irlandako irlaren kasuaren ez-ohiko inguruabarregatik, irtenbide malgu eta irudimentsuak izango dira beharrezkoak, muga zurrun bat saihestera zuzendutakoak barne

sartuta, beti ere EBren ordenamendu juridikoaren osotasuna errespetatuz. EBren araudiarekin bateragarri diren Erresuma Batuaren eta Irlandaren arteko aldebiko akordioak errespetatuko dira.

- EBk eta Erresuma Batuak akordioak lortu beharko dituzte Erresuma Batuaren Zipreko subiranotasun zonei buruz: EBk aitortza emango die Zipreren eta Erresuma Batuaren arteko aldebiko akordioei, EBren araudiarekin bateragarriak baldin badira (subiranotasun zona horietan bizi diren eta lan egiten duten EBko herritarren eskubide eta interesei egiten die erreferentzia bereziki).
- Behin irteera gertatuta, Erresuma Batuak, Batasunak sinaturiko akordioei lotuta egoteari utziko dio. Batasunak, eskubide eta betebeharrak mantentzen jarraituko du nazioarteko akordioetan.
- Irteera akordioak, irteeraren ondorioz beste lankidetzaren arlo batzuetan suertatu daitezkeen gaiak jorratu beharko ditu. Gai hauek arlo judiziala, lege-betetzea eta segurtasuna izan daitezke, besteak beste.
- Erresuma Batuan kokatutako EBren organismoen egoitza eta instalazioen kokagune berria 27 Estatuaren eskumenekoa izan arren, horien lekualdaketak errazteko akordioak bilatuko dira.
- Erresuma Batua edota Erresuma Batuan kokatuta dauden pertsona fisiko nahiz juridikoei eragiten dien segurtasun juridikoa eta tratu-berdintasuna bermatzeko formulak lortu beharko dira irteeraren unean EBren Justizia Auzitegiaren aurrean amaitu gabe dauden prozedura judizial guztietan. Auzitegiak prozedura horiek adjudikatzeko aginpidea izaten jarraitu beharko du. Antzeko formulak ere lortu beharko dira, Europako Batzordearen eta Batasuneko organoen aurrean amaitu gabe dauden prozedura administratiboetarako, Erresuma Batua edota Erresuma Batuan kokatuta dauden pertsona fisiko nahiz juridikoei eragiten dienean.
- Irteerari buruzko akordioak mekanismo egokiak aurreikusi beharko ditu beraren aplikazio eta interpretazioaren inguruan sor litezkeen desadostasunak konpontzeko. Halaber, akordio instituzionalak aurreikusi beharko dira irteerari buruzko akordioan aurreikusten ez diren egoerak tratatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izateko.

4. EUOPAR BATASUNAREN ETA ERRESUMA BATUAREN ARTEKO ETORKIZUNEN HARREMANEN ESPARRUARI BURUZKO AURRETIKO EZTABAIDAK ETA PRESTATZE-EZTABAIDAK

Kontseilu Europarrak poztasunez hartzen du irteeraren ostean Batasunaren eta Erresuma Batuaren artean lankidetzaren estua eratzeaz Erresuma Batuak adierazi duen nahia, eta bere egiten du nahi hori. Adierazten du Batasunaren eta hirugarren herrialde baten arteko erlazioak ezin dituela Batasunaren kide izatearen onura berdina eskaini. Nolanahi ere, bi alderdien arteko lotura sendo eta eraikitzaileak iraun egingo dute guztien intereserako eta merkataritza baino zerbait gehiago hartu beharko dute bere gain.

Kontseilu Europarrak adierazten du:

- Prestatuta dagoela Erresuma Batuarekin merkataritza akordio bat lortzera zuzendutako lana hasteko; akordio hori Erresuma Batuak EBko kidea izateari uzten dion unean amaitu eta ospatuko da.
- Merkataritza libreko akordioak, orekatua, handinahia eta irismen zabalekoa izan beharko lukeela. Ezin da merkatu bateratuan edo bere zati batean parte-hartzearen baliokide izan, zeren horrek kalte egingo bailieke beraren osotasunari eta beraren funtzionamendu egokiari.
- Berdintasunezko baldintzak bermatu behar dituela bereziki konkurrentziaren eta laguntza publikoen alorrean, eta konkurrentzia-abantaila desleialen aurkako bermeak izan behar dituela, besteak beste zerga-, gizarte- eta ingurumen-arloko neurri eta praktiken bidez lorturiko abantaila desleialen aurka.
- Etorkizuneko edozein markok Batasunaren egonkortasun finantzarioa babestu beharko duela, eta baita bere erregimena eta gainbegiratze eta arautze arauak errespetatu ere.
- Merkataritzaz gain, EB prest dagoela elkartzeko akordioak beste eremu batzuetan ezartzeko, hala nola terrorismoaren eta nazioarteko krimenaren aurkako borrokan, segurtasuna eta defentsan eta kanpo politikaren eremuan, besteak beste.
- Etorkizuneko elkarteak mekanismo egokiak izan beharko dituela bere betearazpena bermatzeko eta desadostasunak konpontzeko, Batasunaren autonomian eta –zehazki- beraren erabakitze-prozeduretan eraginik izan gabe.
- Erresuma Batua Batasunetik ateratzen denean, EBren eta Erresuma Batuaren arteko ezein akordiorik ez dela izango aplikagarria Gibraltarko lurraldean Espainiako Erresuma eta Erresuma Batua alde aurretik ados jarri gabe.

5. LANKIDETZA LEIALAREN PRINTZIPIOA

Kontseilu Europarrak adierazten du Erresuma Batua Batasunetik ateratzen den arte EBko eskubide osoko kidea izaten jarraituko duela, eta, hortaz, Europar Batasunaren Tratatuetan eta beraren legedian ezarritako eskubide eta betebeharren mende egongo dela. Hor sartzan da lankidetzaren leialaren printzipioa ere.

Europar Kontseiluak aitortzen du beharrezkoa dela, nazioarteko testuinguruan, Erresuma Batuaren espezifikotasunak kontuan hartzea, irteten egiten ari den Estatu gisa, betiere kidea izaten jarraitzen duen bitartean leialtasunez jokatzeko badu Batasunaren interesekin.

Erresuma Batua kidea den bitartean, EBren jarduera arruntek ahalik eta leuntasunik handienarekin jarraitu behar dute aurrera egiten 28 Estaturen artean. Kontseilu Europarrak adierazten du Batasunak ezarri dituen lehentasunak anbizioz bultzatzeko konpromisoari eusten diola. Erresuma Batuarekiko negoziazioak Batasunaren ohiko jardueretatik kanpo bideratuko den gai bat izango dira, eta, hortaz, negoziatioek ez dute bere aurrerabidea oztopatuko.